



# Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Udal Garapena

## Laudioko Udalaren Hizkuntza Politikaren diagnostikoa



EUSKALGINTZAREN  
KONTSEILUA



LAUDIO  
UDALA  
AYUNTAMIENTO  
DE LLODIO



AIARALDEKO  
EUSKALGINTZA  
KONTSEILUA



**Izenburua:**

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko  
Protokoloa: Udal Garapena

*Laudioko Udalaren  
Hizkuntza Politikaren  
diagnostikoa*

**Egilea:** Euskalgintzaren Kontseilua

**Argitaratze-data:**

2024ko abendua

**Oharra:**

argitalpen honetako eduki guztien  
egile eskubideak erreserbatuta  
daude;

© Euskalgintzaren Kontseilua

© Laudioko Udala

## SARRERA

Dokumentu honetan Laudioko Udalean, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Udal Garapena oinarri hartuta egindako diagnostikoaren emaitza aurkezten dugu, eta, horrekin batera, Diagnostikoa egiteko galdetegia. Galdetegia, hain zuzen ere, Udal Garapenean agertzen diren neurrien araberakoa da.

Kontseiluak, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Udal Garapena dokumentua 2019ko azaroan aurkeztu zuen, eta, Herriko Etxeetarako Garapena, Ipar Euskal Herrirako egokitutako bertsioa, 2020ko otsailean. Bertan, udalaren hizkuntza-politika modu integralean lantzeko neurriak proposatzen dira. Neurri horiek aplikatzeko beharrezkoa da udalerrri bakoitzak bere egoeraren diagnostikoa egitea eta galdetegia behar horri erantzutera dator.

Galdetegia bera osatu ahal izateko eta Euskal Herri osoan baliagarria izan dadin, Uhartzen (Nafarroa) Arrigorriagan (EAE) eta Hendaian esperientzia pilotuak egin ziren 2021 eta 2022 urteetan, eta bertako emaitzak baliatu dira. Horiei esker, hiru lurralde administratibotan baliagarria izango den galdetegia osatu ahal izan dugu. Oraingo honetan, galdetegiaren egokitasuna Laudioko Udalean frogatu ahal izan dugu, eta, hemen, esan bezala, emaitza aurkezten dugu.

### **Udal Garapenaren edukia (ikus dokumentua)**

Udal Garapena dokumentuan udal batek herritarren hizkuntza eskubideak berma ditzan garatu beharreko neurriak biltzen dira. Udal barneko jarduerak ez ezik, udalaz kanpoko jarduerak ere lantzen dira, hau da, udalaren eragin eremu osoa hartzen da kontutan.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa oinarri hartuta, udaletako hizkuntza-politikak, sail eta eremu guztietan, hiru helburu nagusiri erantzun behar diotela ondorioztatu dugu:

- Zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea
- Komunikazio-jarduera euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea
- Euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzea

Hori esanda, Udal Garapenean bi atal nagusi bereizi dira: Batetik, udal administrazioaren eremu gisa izendatu duguna; bestetik, udal administratibotik kanpoko eremuak. Bigarren multzo horretan sartu ditugu ondorengo eremuak: hezkuntza formala eta ez formala, eremu sozioekonomikoa, hedabideak eta ingurune digitala, kultura eta onomastika.

Kasu batean zein bestean, hasieran aipatutako hiru helburuak abiapuntu izanda, horietara heltzeko mugarriak definitu ditugu, bai eta horiek egikaritzeko neurri-proposamenak ere.

## METODOLOGIA

Diagnostikoa egiteko, beraz, Euskalgintzaren Kontseiluak hizkuntza eskubideetan oinarritutako neurri sorta hartu du erreferentziatzat eta galdetegi bat osatu du euskal eremu guztietarako baliagarria dena. Galdetegi hori Laudioko Udalaren diagnostikoa egiteko erabili da, eta bertako euskara teknikariek eta euskara zinegotziaren bidez bete da.

### **Udal Garapenaren aplikazioa**

Kontseiluaren asmoa Udal agintariei hizkuntza-politika diseinatzeko gako eta irizpideak eskaintzea izan da, eta, beraz, galdetegia irizpide horien arabera osatu da. Galdetegia osatzeko Udal Garapenean agertzen diren neurriak oinarri izan badira ere, jadanik indarrean dauden beste tresnak hartu dira kontuan, hala nola, Erreferentziazko Marko Estandarrean agertzen den adierazle sistema edo Ipar Euskal Herrian Hobekuntza Kontratuak osatzeko erabilitako irizpideak. Honela, udalak jadanik dituen datuak baliatu ditzake galdetegiaren zati bati erantzuteko.

Behin diagnostikoa eskutan, hutsuneak non dauden identifikatu eta lehentasunak zehazten ahalko dira. Gainera, diagnostikoaren emaitzak herriko euskalgintzako eragileekin partekatu eta lehentasunak non kokatzen diren aztertu daiteke. Azkenik, datozen urteetarako lan ildoak definitzen ahalko dira eta horiek aurrera eramateko proiektu eta proposamenak egin.

## **Galdetegiaren hartzaila**

Galdetegia Udal zinegotziei zuzenduta dago bereziki, eta eurek eta euskara teknikariek betetzeko diseinatu dago; hau da, beraiek duten informazioarekin nahikoa xehetasun lortzen da hizkuntza-politikaren ikuspegi orokor bat izateko. Udalaren kanpo eta barne jardueraren ikuspegi orokor bat eskaini dezake ondoren plangintza zehatzak zehaztu ahal izateko. Zinegotzietz gain, herrian hizkuntza-politikan inplikaturik dauden udal zerbitzu edo elkarteek ere erabili dezakete diagnostiko honen emaitza.

## **Diagnostikoaren edukia**

Diagnostikoa honako eskemaren arabera banatzen da.

### UDAL BARNEKO JARDUERA

Araudia

Zerbitzua:

- Herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanak
- Kanpo-harreman instituzional, dirulaguntzak eta kontratuak

Komunikazioa

- Hizkuntza paisaia eta irudi korporatiboa
- Idazkiko eta ahozko jardura
- Ingurune digitala

Lana

- Langileek euskaraz lan egiteko baldintzak
- Formakuntza eta gaitasuna
- Lanpostuak eta kontratazioak

Plangintza

### UDALAZ KANPOKO JARDUERA

Hezkuntza formala

- Hezkuntza
- Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea

Hezkuntza ez-formala

Eremu sozioekonomikoa

Hedabideak eta ingurune digitala

Kultura

Onomastika

Diagnostikoa osatzeko galdetegiak guztira 75 galdera ditu, eta horietako batzuetan bi edo hiru azpi galdera egon daitezke.

Galdera guztiak euskal lurralde eremu guztietan betetzeko moduan eginda daude. Eskumen ezberdinak direla-eta, galdera gutxi batzuetan zehaztuta egongo da zein lurralde eremuri dagokion; Nafarroa (NAF), Ipar Euskal-Herria (IEH) edo Euskal Autonomi Erkidegoa (EAE).

Atal bakoitzean galdera (GALDERA) sorta bat dago. Galdera bakoitzak Udal Garapenak biltzen dituen neurri edo neurri sorta bati egiten dio erreferentzia, eta, beraz, galdera bakoitzean azpi-galdera bat edo gehiago aurkituko ditugu.

Hurrengo zutabean erantzun motak agertzen dira (EMAITZA). Gehienetan portzentajeak eskatzen dira lau taldetan banatuta; %100 // %66-%99 // %32-%65 // %0-%32. Ez dira eginak zifra zehatza jasotzeko asmoz, nahiko zabalak dira, eta, horrenbestez, estimazio bat egiteko balio behar lukete. Gisa horretan emaitza bat izango dugu 3tik Orako eskala (3-2-1-0) batean kuantifikatu daitekeena.

Azkenik, emaitza hori kualifikatzeko, azalpenak eskatzen dira, eta bertan ere, aukera ezberdinak zerrendatzen dira (KONTUTAN HARTZEKO ELEMENTU KUALITATIBOAK). Aukera horien artean bat edo gehiago hautatu daitezke edota bestelako erantzun bat eman (besterik). Erantzun hauei esker aurrera begirako plangintza osatzeko azpi-marra non ezarri neurtzen ahalko da. Azken atal honek hutsuneen arrazoiak sakontzeko aukera ematen digu.

Erantzun motak graduatzeko irizpide nagusia hizkuntza eskubideen bermea izan da, eta, beraz, horren araberaz graduatzen dira erantzun motak. Ondorioz, neurri batzuk lurralde batzuetan lege-eragozpenak direla eta, ezingo dira bete. Argi dago, beraz, ofiziala ez den eremuetan ez dela beti aukerarik egongo maila go-renera iristeko. Neurri horien kasuan azalpen kualifikatuaren atalean zehaztu beharko da lege-eragozpenaz gain bestelako arrazoirik ere ote dagoen neurria ez betetzeko.

Idatzizko edukiei dagokienez, galdetegi honetan soilik udalak sortutako dokumentuez ariko gara. Ez dira, beraz, kontutan hartuko udalaren bitartez beste entitate administratibo batek herritarrei banatzen dizkien dokumentuak ez eta beste entitate batek argitaratuta udalak banatzen dituen dokumentuak ere; nahiz eta, herritarren esku bide horretatik jarri. Ondorioz, Euskal Herriko udal guztiek daukate aukera helburu hori erdiesteko inolako lege eragozpenik gabe.

Behin galderak bete eta emaitzak aztertu ondoren, aurrera begirako ekintza plana osatzeko elementuak eskura izango dira. Hain zuzen ere, ondoko epealdirako helburu berriak jartzen ahalko dira lantzea erabaki den neurri bakoitzean.

## LAUDIOKO UDALAREN HIZKUNTZA-POLITIKAREN DIAGNOSTIKOA UDAL GARAPENA ERREFERENTZIATZAT HARTUTA

### **UDALAREN BARNE JARDUERARI BURUZKO EMAITZAK ETA ONDORIOAK**

#### **ARAUA**

##### **Balio juridikoa**

Laudioko Udalean euskarak balio juridiko osoa du, horrenbestez, herritarrek euskarara hutsean gara dezakete harremana udalarekin eta euskarara hutsean jaso dezakete Udalaren zerbitzua.

3

##### **Euskaraz lan egiteko eskubidea**

Langileei euskaraz lan egiteko eskubidea aitortzen zaie eta udalaz gaindikoko lege-riak ere hala aitortzen die.

3

##### **Komunikazio irizpideak**

Komunikazio irizpideak arautzen dira. Komunikazio irizpideak biltzen dituen dokumentuan hizkuntza irizpideak txertatuta daude.

3

#### **HERRITARREKIKO AHOZKO ETA IDATZIZKO HARREMANAK**

##### **Idatzizko zerbitzua**

Udalak herritarrei begira sortutako idatzizko dokumentazioa, formularioak, gutunak, izapideak, informazio orriak, jakinarazpenak....kasu gehienetan euskaraz dira. Azken neurketan, idazkien %95 ziren euskaraz.

2

##### **Ahozko zerbitzua**

Ahozko arretari dagokionez, harrera orokorra, zerbitzu ezberdinetako arreta-gu-neak, telefono, online edo aurrez aurre burutzen diren harremanak euskaraz dira.

3

##### **Prozedurak**

Prozedurak euskaraz egin ditzakete herritarrek eta hizkuntzagatiko atzerapenik egon ez dadin bermatzen da.

3

#### **KANPO-HARREMAN INSTITUZIONALAK, DIRULAGUNTZAK ETA UDAL-KONTRATUAK**

##### **Ofiziozko prozedurak**

Udalak ofizioz hasten dituen prozedura gehienak euskaraz dira. Jakinarazpenak euskaraz ere egon daitezzen bermatzen da beti.

2

### Enpresa eta elkarteekin harreman-hizkuntza

Administraziotik kanpoko egiturekin harremanak, hau da, enpresa edota elkarteekin, interlokutorea euskalduna denean eta hizkuntza horretan aritzeko hautua egiten badu, idatzizko komunikazioan euskaraz aritzea bermatzen da beti. Hala ere, ahozko komunikazioari dagokionean, kasu askotan ez dago bermatuta.

1

Kontratazio eta esleipenetan berriz, kasu gutxitan zehazten da harremana euskaraz izango dela. Salbuespen modura, Euskara sailetik bideratutako kontratazioak daude. Hauetan beti zehazten da.

1

### Dirulaguntzak

Dirulaguntza deialdietan hizkuntza irizpideak zehazten dira eta puntuazio sisteman sartzen da beti. Dirulaguntza deialdietan ez ezik, Ordenantza Orokorrean zehaztuta dago.

3

Era berean, kasu gehienetan jarraipena egiten da, baina ez guztietan.

2

Azkenik, dirulaguntza ia deialdi bakar batean ere ez da euskara baloratzen. Legeak baimendu arren, helegiteekiko beldurra da oztopo nagusia. Salbuespen modura, gobernantza feministara bideratutako dirulaguntzetan euskara baloratu da.

1

### Esleipen edo azpi-kontratazio bidez zerbitzua ematea

Udalak azpikontratazio bidez eskaintzen dituen herritarrenganako zerbitzuetan euskarazko zerbitzua bermatzen da gehienetan, batez ere, jendaurreko zerbitzuak badira.

2

Azpikontrataturako enpresei, hizkuntza irizpideak betetzen dituzten jakiteko, jarraipena egiten zaie batzuetan baina ez dago sistematizatua, ez eta orokortua ere.

1

Kontraturako hizkuntza klausuletan neurriak aurreikusten dira eta betetzen ez den kasuetan kontratua eteteko aukera dago.

3

Jabari publikoaren erabilera berezia eta pribatiboa baimentzeko tituluetan (Tabernetako terrazak adibidez) ez dira hizkuntza klausulak txertatzen herritarrei ematen zaien informazio oro eta segurtasun abisuak euskaraz egon daitezen.

0

Jabari publikoaren erabilera berezia eta pribatiboa baimentzeko garaian (tabernetako terrazak, adibidez) Udalaren hizkuntza irizpideak bermatzeko ez da sustapen lanik egiten herritarrei ematen zaien informazio oro eta segurtasun abisuak euskaraz egon daitezen.

0

## HIZKUNTZA PAISAIA ETA IRUDI KORPORATIBOA

### Seinaletika eta errotulazioa

Kanpo- eta barne-seinaletika, autoetako dekorazioa, izenpedura elektronikoak, igogailuak, argi seinaleak, segurtasun eta babes seinaleetika, seinaleetika iraunkorra oro har, bozgoragailu, erantzungailu eta kartel elektronikoak euskaraz dira beti. Gauza bera behin behinekoarekin (obretakoa, ekimen berezietakoa...). Inoiz hutsik eginez gero, berehala zuzentzen da.

3

## IDATZIZKO ETA AHOZKO KOMUNIKAZIO JARDUERA

### Idatzizko euskarriak

Udalarenak diren argitalpenak orokorrak zein berezituak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, kartela/afitzak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak, publizitate instituzionala euskaraz dago.

3

Hala ere, euskara ez da ia inoiz sortze-hizkuntza.

0

### Jendaurreko ekitaldiak

Jendaurreko ekitaldiak euskaraz egiten dira kasu dezentetan.

2

### Jarduera ofiziala

Arloburuen, batzorde informatiboen, osoko bilkuren, auzo batzarren... gehiengoa euskaraz egin ohi da, behar izanez gero itzulpen zerbitzua erabiliz, gisa horretan euskaldunak ez du bere burua itzuli beharrik.

2

Batzar orokorretan beti erabiltzen da itzulpen sistema.

3

## INGURUNE DIGITALA

### Webgune eta sare sozialak

Udalaren webgune eta sare sozial guztiak euskaraz dira.

3

### Internet bidezko zerbitzuak

Internet bidezko udal-zerbitzuak euskaraz eskaintzen dira.

3

## EUSKARAZ LAN EGITEKO BALDINTZAK

### Baliabideak

Langileek euskaraz lan egin dezaten baliabide dezente dituzte.

2

### Langileen euskara maila

Sail guztietan B2 baino goragoko maila duten langileak dauden arren, ia ez da euskara hutsez ari den lan talde edo sailik, neurri batean, jendearen hautuagatik.

0

### Languneetako hizkuntza paisaia

Languneetako errotulazio txikia, (armairuak, apalak, karpetak, artxiboak, etab.), horma-irudiak, eta antzekoak. Lan-arriskuen prebentzioarekin eta ingurumenarekin lotutako errotulazioa. Ekoizpen-makinen errotulazioa, botoiak eta plakak. Errotulazio aldakorra. Kafe- eta janari-makinak, fotokopiagailuak, etab. Sareko edo euskarri informatikoko karpetak eta dokumentuak izendatzeko jarraibideak... dezente daude euskaraz.

2

### Informazio eta komunikaziorako tresnak

Agiri-guneak: ohar- eta iragarki-taulak, iradokizunen postontzia, Intranet-a, berri-papera, posta elektronikoz egindako jakinarazpenak (langile berriak, bajak, etab.), zirkularrak, opor fitxak... euskaraz daude.

3

### Idatziko barne harremanak

Lan bileretako idatziak: erakundeak sortutako deialdiak, gai-ordenak eta aktak, gaiari buruzko dokumentuak... idazki laburrak: oharrak, jakinarazpenak, inprimakiak... idazki luzeak: memoriak, txostenak, proiektuak, etab. Lan aginduak, lan parteak. Dokumentu ofizialak, plangintza eta estrategia dokumentuak, auditoriak, kudeaketa ekonomikoa, kalitate ingurumen prebentzio inguruko dokumentazioa, komunikazio planak, irudi korporatiboaren eskuliburua... euskaraz daude kasu gehienetan.

2

### Ahozko barne harremanak

Erakundearen lan-bileretako ahozko harremanetako hizkuntza; bideokonferentzia bidezko bilerak; erakunde barruko lankideekin telefono bidezko harremanetako hizkuntza; erakunde barruko lankideekin aurrez aurreko harremanetako hizkuntza, batzuetan soilik dira euskaraz.

1

### Software informatikoa

Software informatikoa defektuz ez dago euskaraz.

0

**Erabilera bultzatzeko kanpainak**

Ez da euskararen erabilera bultzatzeko barne kanpainarik egiten.

0

**Pertsonalaren kudeaketa**

Langile etorri berrientzako protokoloa, harrera-liburuxka, ahozko harrera. Barne txostenak: lanpostuari lotutako dokumentazioa...Opor fitxak, seguruak, erretiroa...lege dokumentuak: kontratua, lan-baldintzen inguruko dokumentazioa, gizarte segurantz

Aurrez aurreko ebaluazioak, errendimendu txostenak, nomina/soldata fitxa, ordutegi kontrola, egiaztagiriak, lizentzia baimenak, Lanpostu eskaintzak, lan ordu-tegiak, egutegiak... Udalak sortutako dokumentuak direnean, batzuk soilik dira euskaraz.

1

**Euskara mailaren egiaztapena**

Lanpostuari lotutako gaitasuna frogatzeko azterketa euskaraz egiteko aukera eskaintzen da, baina ez da beharrezkoa euskaraz egitea.

1

**FORMAKUNTZA ETA GAITASUNA**

**Formakuntzetako hizkuntza**

Langileek jasotzen dituzten prestakuntza-saioretan ahoz eta idatziz erabilitako hizkuntza gutxitan izan ohi da euskara.

0

**Euskalduntzeko prozedura**

Beharrezko hizkuntza-gaitasuna ez duten langile guztiek dute formazio plana edo programa. Matrikula ordaintzen zaie eta orduen erdia Udalak hartzen du bere gain.

3

**B2 mailatik gorako langile kopurua**

la langile guztiek dute B2 edo goragoko gaitasuna egiaztatuta.

2

**Hautetsien hizkuntza maila**

Hautetsi dezentek dakite euskaraz.

2

**LANPOSTUAK ETA KONTRATAZIOAK**

**Lanpostuen hizkuntza irizpidea**

Lanpostu gehienek derrigortasun data dute. Udala Eusko Jaurlaritzaren derrigortasun-indizearen gainera dago. Lanpostuen %95ak du derrigortasun-data ezarrita.

2

**Lanpostuen hizkuntza eskakizuna**

Hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak B2 mailatik gorakoak brigadako langileen kasuan izan ezik. B1 eskakizuna dute.

2

Goi mailako lanpostuek C1 maila dute gutxienez.

3

Zerbitzuak euskaraz eskaintzeko behar beste langile dago.

3

Deialdi berri guztietan langile euskaldunak kontratatzen dira beti.

3

**PLANGINTZAREN IRIZPIDEAK**

**Hizkuntza-politikaren plangintza orokorra**

Hizkuntza-politika orokorraren plangintza eginda dago: ildo nagusiak zehaztuta, Euskara Batzordean landuta eta Batzarrak berretsita. Hizkuntzaren erabilera zehazten duten irizpideak jasotzen dira eta komunikazio mota guztiak hartzen dira kontutan. Plangintza epeka ebaluatzen da eta neurri zuzentzaileak aurreikusten dira.

3



### Baliabideak

Euskara arloa dago baina kanpo parte hartzerik gabe. Udal-aurrekontuaren %2,25 esleitzen zaio Euskara Sailari, kontuan hartu gabe zehar-lerrotasunez garatutako euskararen aldeko politikak zein beste departamentuetan euskararen normalizaziorako esleitzen dena.

3

### Euskaingintzaren parte hartzea

Hizkuntza-politikaren diseinua udaletxeak egiten du eta honen berri ematen dio euskaingintzari. Hala, urrats batzuk eman badira ere, badago zer hobetua Udalaren eta euskaingintzaren arteko elkarlanean.

1

### Zerbitzua euskaraz

Zerbitzua euskaraz emateko irizpideak finkatuta daude eta lehen hitza euskaraz izan dadin zehaztuta.

3

### Komunikazio jarduera

Komunikazio jardueran hizkuntza irizpideak zehaztuta daude. Horrekin batera, haur eta gazteei zuzendutako komunikazioa euskaraz izan dadin lehentasuna ezarria dago.

3

### Udalaren ardurapeko beste egiturak

Udalaren ardurapeko beste egiturek, izan zuzenekoak zein zeharkakoak, hizkuntza irizpideak zehaztuta dituzte.

3

### Euskaraz lan egiteko irizpideak

Euskaraz lan egiteko baliabideak zehaztuta eta eskuragarri daude sail guztietan.

3

## ONDORIOAK

Laudioko Udalean hizkuntza-politika planifikatu eta eraginkor bat dago ezarrita. Udalaren barne jarduerari dagokionez, ebaluatutako 50 irizpideetatik 38 beteta edo ia beteta daudela esan daiteke:

Euskarari ematen zaion balio juridikoa erabatekoa da. Herritarrek euskarazko zerbitzua jasotzea bermatzen da ahoz zein idatziz eta langileei euskaraz lan egiteko aukera bermatzen zaie. Lanpostuen %95ek du ezarrita derrigortasun-data eta lanpostu berri guztiek hizkuntza eskakizuna dute. Euskara doan ikasteko baliabideak daude eta denboraren erdia lanorduetan izan dadin dago ezarrita.

Era berean, jarraian zerrendatutako hainbat hutsune osatzeko neurriak aurreikusten dira Udalaren Euskara Plan berrian.

Ebaluatu diren 50 irizpideetan 12tan hutsune identifikatu dira. Hauek lirateke nabarmentzekoak:

Kontratazio eta esleipenetan euskararen erabilera bermatzeko klausulak ez daude orokortuta.

Euskara lan-hizkuntza bezala jasota badago ere, ez dago euskarazko zirkuitu edo unitaterik egituratuta.

Ildo beretik, dirulaguntza deialdietan euskararen erabilera ez dago balorazio sisteman txerztatuta.

Dirulaguntzak jasotzeko baldintzetan herritarrei begirako komunikazio jarduera euskaraz egitea eskatzen bada ere, ez dago jarraipena sistematizatzeko neurririk.

Era berean, jabari publikoaren erabilera pribatiboa baimentzeko tituluetan ez da hizkuntza irizpiderik ez eta euskararen aldeko sustapenik zehazten. Dena den, herriko taberna gehienak euskara plan baten barruan daude, non euskara erabiltzeko konpromisoa jasotzen den. Egun bete ez arren, lanerako ildo bat izan daiteke.

Komunikazio idatzian euskararen presentzia bermatzen bada ere, inoiz gutxitan da sortze hizkuntza. Hala ere, hutsune hau jasota dago euskara plan berrian eta lantzeko konpromisoa dago Udalaren partetik.

Barne mailan badago zer hobetua langileen artean euskararen erabilera bultzatze aldera, bai sentsibilizazio kanpaina aldetik, bai eta eskaintzen diren formazioetan euskararen presentzia bermatuz.

EAEko sektore publikoan euskararen normalizazioa arautzeko onartu berri den dekretuak ahalbidetzen duenaren ildotik, hautaprobetan azterketa euskaraz egiteko betebeharra ezartzeak langileak bere egunerokoan izango dituen egitekoetan euskaraz aritzeko duen gaitasuna egiaztatze bide eraginkorra izan daiteke.

Software informatikoa euskaraz jartzea ezinbestekoa da lan eremuan euskararen erabilera normalizatzeko.

Azkenik, Udalak bideratutako hizkuntza-politiketan euskalgintzaren parte hartzea murrizta izan bada ere, prozesu hau bera lehen urrats bat izan daiteke norabide horretan.

## **UDALAREN KANPO JARDUERARI BURUZKO EMAITZAK ETA ONDORIOAK**

### **HEZKUNTZA FORMALA**

Udalak murgiltze ereduaren inguruko informazioa zabaltzen du eta kanpainak egiten ditu matrikulazio kanpaina garaian.

3

Harrera protokoloetan haurren eta helduen euskarazko irakaskuntzaren aldeko sustapena egiteko ez da informaziorik banatzen. Dena den, haurrei dagokienean, euskarazkoa da dagoen eskaintza eta helduentzako programa berezia dago euskara ez ezagutzetik ezagutzerako trantsizioan laguntzeko.

0

Helduen euskalduntze eta alfabetatzeari begira, Udalak sustapen kanpainak antolatzen ditu eta dirulaguntzak eskaintzen ditu euskara ikasteko.

3

### **HEZKUNTZA EZ FORMALA - ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK (Musika eta arte-eskolak, kirol talde eta federazioak, aisialdi zentroak)**

Udalaren menpeko zentroetan, azpikontratatuta egon edo ez, ikastaro batzuk soilik eskaintzen dira euskaraz, batez ere kultur etxean eta kiroldegian.

1

Udalaren menpeko ez diren zentroetan, dirulaguntza deialdietan, euskarazko eskaintza ematea puntuazio sisteman sartzen da.

2

### **EREMU SOZIOEKONOMIKOA**

Merkataritza baimenak ematerako garaian Udalak ez ditu hizkuntza irizpideak zehazten, baina sentsibilizazio kanpainak egiten ditu.

1

Merkataritza establezimenduetan segurtasunari eta osasunari buruzko jarraibideak eta kanpo-eta barne-seinaletika ez dira euskaraz jartzen.

0

Udalak aldiz, eremu sozioekonomikoan euskara sustatzeko politika garatzen du, merkataritza elkarteekin proiektuak edo planak garatuz, kontsumitzaileei begirako sentsibilizazio kanpainak eginez eta euskarazko zerbitzua eskaintzen duten establezimenduak identifikatuz.

3

Funtsezko zerbitzuei dagokionez, Udalak zergak euskaraz betetzeko langile euskaldunak egon daitezzen eskatzen du.

3

|  |   |
|--|---|
| Estatuaren menpekoekin berriz, ez da halako eskaririk egiten.  | 0 |
| Enpresa pribatuei dagokionez (bankuak, telefonia...) bankuekin egin izan da baina noizean behin eta baliabide faltagatik ez da jarraitu.   | 0 |
| Azkenik, eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko programak bultzatzen ditu Udalak.  | 3 |
| <b>HEDABIDEAK</b>  |   |
| Udalaren hedabideetan dena euskaraz dago eta euskaraz ari direnek ez dute euren burua itzuli behar.  | 3 |
| Tokiko euskarazko hedabideak laguntzen dira eta publizitate instituzionala gutxienez euskaraz ematen da.   | 3 |
| <b>INGURUNE DIGITALA</b>   |   |
| Udaleko ingurune digitalean ia ez dago euskarazko software eta nabigatzaileak.   | 0 |
| Haur eta gazteentzat euskarazko produktu digitalak eskuragarri daude.  | 3 |
| Era berean, Udalak tokiko webguneak euskaratzeko laguntzak ematen ditu.  | 3 |
| <b>KULTURA</b>   |   |
| Udalaren kultur-programazioan euskararen presentzia ez dago ezagutza tasaren gaineratik (gehienez gazteei begira programatzen da euskaraz).  | 1 |
| Udal azpiegitura publikoetan euskaraz programatzeko kuota bat dago, baina beste hizkuntzetan programatzen dena gehiago da.   | 1 |
| Dirulaguntza jasotzen duten elkarte batzuk haien programazioa euskaraz zabalitzen eta aurkezten dute.  | 1 |
| Udal azpiegiturak erabiltzeko hizkuntza irizpideak betetzen dira beti.   | 3 |
| Dirulaguntzen puntuazio sisteman euskaraz soilik ari diren sortzaile eta eragileak baloratzen dira.  | 3 |
| Zinema aretoaren programazioan ez da euskarazko zinema gutxienez jartzen eta ez dago ia euskarazko zinema programaziorik.  | 0 |
| <b>ONOMASTIKA</b>  |   |
| Udalak Euskaltzaindiak zehaztutako toponimia hartzen du erreferentziatzat eta idatzizko dokumentazioan euskaraz dago.  | 3 |
| Herriko euskarazko toponimia-ikerketa sakona egin da duela urte batzuk eta aplikazioa Udaletik zaintzen da.  | 3 |
| Garraiobide, kale-izendegi eta auzo izenak euskaraz daude.   | 3 |
| Horrez gain, Udalak euskarazko antroponimoak erabiltzen ditu eta zerbitzua ematen du pertsona-izenen kontsultak errazteko eta euskal abizenak euskal forman erregistratzen laguntzeko. | 3 |

## ONDORIOAK

Laudioko Udalaren kanpo jarduerari dagokionena, azterturiko 27 irizpideetatik 16 beteta edo ia beteta daudela esan daiteke:

Udalaren hizkuntza-politika kanpo eragin eremuan oso hedatuta dago. Ereku batzuetan eragitea falta bada ere, nabarmentzekoa da Udalaren esku-hartzea ahalik eta eremu gehienetan euskararen presentzia bermatzeko.

Ebaluatu diren 27 irizpideetan 11 hutsune edo hobetzeko esparru identifikatu dira. Hauek lirateke nabarmentzekoak:

Udalaren harrera protokoloetan hizkuntzaren aldagaia txertatzea lehen urrats garrantzitsu bat litzateke etorri berriei tokiko errealitate soziolingüistikoaren inguruko informazioa berezitua eskaini eta, behar izanez gero, euskararako irisbidea bermatzeko dauden baliabideak ahalik eta modu errazenean euren eskura jartzeko.

Barrura begirako ingurune digitalari dagokionean bezala, herritarren eskura dauden Udalaren menpeko zerbitzu informatikoetan euskarazko aukera ez dago bermatuta.

Ereku sozioekonomikoan, bereziki merkataritzan, hizkuntza irizpideak ezartzeko aukera ez da baliatzen.

Kultur-programazioan, zinema eskaintza barne, heldu zein gazteentzako kuota altuagoak ezartzeko marjina dago. Bereziki dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarten kasuan.

## LAUDIOKO EUSKALGINTZAK ETA HERRITARREK DIAGNOSTIKOARI EGINDAKO EKARPENAK

Dokumentuan orain arte jasotako emaitzak eta ondorioak Laudioko herritarrei eta euskalgintzari aurkeztu zitzaizkien urriaren 17an, Laudioko kultur etxean egindako bilera irekian. Azken batean, Protokoloaren Udal Garapenak azterketa soiletik haragoko bokazioa eta bisioa dauzka, gobernantza eredu parte-hartzaile bat oinarri, hizkuntza-politiken diseinuan herritarren eta euskalgintzaren partehartze zuzena ezinbestekoak baitira egiazki eraginkorra izango den bide bat urratuko bada euskararen normalizazio eta biziberritzaerantz.

Lehenik eta behin, bertaratu zirenek balioan jarri zuten egindako azterketa, baita Udalak bere burua aztergai izateko erakutsitako borondatea eta egindako gardentasun ariketa ere. Era berean, eta diagnostikoa Udalaren hizkuntza-politikak aztertzer mugatzen bada ere, Laudion euskararen egoeraz duten pertzepzioa emaitzek islatzen dutena baino eskasagoa dela adierazi zuen hainbatek. Esaterako, euskaraz dakiten udal langileen kopurua kontuan izanik, erabileran ez dela islatzen adierazi zen. Azkenik, Udalak hizkuntza-politika zeharkakotasunez ezartzearen garrantzia azpimarratu zen, erabaki eta ekimen guztietan euskararen normalizazio eta biziberritzearen aldeko ikuspegia presente egon dadin.

Balorazio orokorrez harago, ekarpen zehatzen lanketari dagokionean, honako hauek dira jaso zirenen artean herritarrek lehentasunezko modura nabarmendu zituztenak:

- Laudiora etorri berrien harrerarako protokolo integral eta komunitario baten beharra adierazi zen, herritar guztiek euskararako irisbidea izango dutela bermatzeko neurriak ezarri, hala nola, euskara ikasteko doakotasuna helduentzat, errefortzu klaseak hala behar duten haurrentzat eta komunitategintzan sakotzea gainontzeko herritarrekin ekimenak antolatuz, euskara oinarri.
- Kultura alorrean, euskarari dagokion espazioa eskaintzeko beharra nabarmendu zen. Hala, euskarazko kultur eskaintzaren kuota igotzeko premia azaldu zen, baita Udalaren Kultura sailatik bideratzea proposatu ere, ez dadin Euskara Sailarena bakarrik izan euskarazko programazioa bultzatzeko egitekoa.

- Eremu sozioekonomikoa aurkeztu zuten eragiteko zailtasun gehien aurkezten dituen alor modura, baita eragiteko premia handienetakoa duen eremu bezala ere. Bertan, merkatariekin sentsibilizazio kanpainak eta gutxieneko arauak adosteko premia azaldu zen, baita azalera handiko saltokiekin harremanetan jartzea euskararen presentzia berma dezaten, bai arretan, baita paisaian ere.
- Lanbide Heziketa ere ezinbesteko aldagaia da lan mundua euskalduntzeko. Horregatik, honen euskalduntzean urratsak emateko beharra nabarmendu zen.
- Hezkuntza ez arautua alor estrategiko gisara nabarmendu zen. Esaterako, eskola kirolean entrenamenduak benetan euskaraz izan daitezen neurriak jartzea edota aisialdirako antolatzen diren jarduera desberdinetan haur eta gazteentzako eskaintza euskara hutsean izan dadin lortzea.
- Euskaingintzarekin elkarlan jarraitua ezinbestekotzat jo da Laudion hizkuntza-politika eraginkorrak garatzeko. Hala, proposamen desberdinak mahaigaineratu dira: hizkuntza-politikan ekarpenak egin eta parte hartzeko foro bat sortzea edota Aiaraldeko Euskaingintza Kontseiluaren eta Laudioko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena.

